



SALTZEKO-MERKATURATZEKO BALDINTZAK

Dokumentu honek adierazten ditu Visesako higiezin parkea dinamizatzeko zerbitzuak bete beharreko baldintzak, Visesako zenbait promoziotan kokatutako elementu babestu zehatz batzuei (etxebizitza + trastelekua + garajea) eta elementu libreei dagokienez (lokalak, lotu gabeko garaje libreak).

HIGIEZINEN EZAUGARRIAK

Visesak honako hauek finkatu ditu nahitaez:

- Babestuta eta libre dagoen elementu bakoitzerako merkaturatzeko modua (salmenta erabateko jabetzarekin - 75 urterako salmenta azalera eskubidean - erosteko aukera duen alokairua).
- Salerosketaren edo errentamenduaren prezioa erosteko aukerarekin. Ez da inoiz elementu bakoitzari esleitutakoa baino txikiagoa izango, salbuespen modura Visesak berariaz prezio txikiagoan onartzen badu salbu.

MERKATURATZEA NOLA EGIN

Izan daitezkeen erosleekin egindako informazio eta negoziazio lanak, higiezinarako bisita eta aurkezpena barne, salerosketa gertatzen den arte edo, hala badagokio, haien errentamendua erosteko aukerarekin, agente laguntzaileen kontu geratuko dira (APIak, higiezin kudeatzaileak).

Salerosketa edo errentamendua ondoren formalizatzeko, Visesari emango zaio sozietate publiko horrek emandako dokumentuaren arabera izan daitezkeen bezeroei buruzko informazioa.

Seinalearekin erreserba formalizatzeko izapideak edo kontratu pribatu edota publikoarenak, Visesak eroslearekin egingo ditu zuzenean.

Izan daitezkeen erosleei eman beharreko informazioaren ondorioetarako, seinalea duten erreserbak, higiezin salerosketako kontratuak edota eskriturak Visesak egingo ditu erosleek berariaz jakingo dituen eta onartuko dituzten baldintzekin.

SALTZEKO BALDINTZAK

1. Elementu librearen prezioaren % 20 ordainduko da, dagokion BEZarekin batera, salerosketaren kontratu pribatua sinatzen denean edo, hala badagokio, zenbateko adostua, gehi BEZa, ordainduko da Visesak bere elementuak merkaturatzeko aurrez finkatutako erreserba dokumentua (seinalearekin) sinatzean.
2. Gainerako % 80, dagokion BEZarekin batera, edo erreserba dokumentuan adierazitako zenbatekoaren eta zenbateko osoa gehi BEZaren arteko aldea, eskritura publikoa ematean ordainduko da.



3. Elementu librearen salerosketako gastu guztiak (zergak, erregistroko gastuak eta abar, gainbalioa salbu) eroslearen kontu izango dira.
4. Visesak zehaztutako beste informazio interesgarriren bat.

PUBLIZITATEA

Honako hau egin beharko da:

- Visesako higiezinaren eskaintza agente laguntzailearen harreman guztiei jakinaraztea.
- Iragarki-kartelak Visesarenak diren elementu babestuetan eta libreetan ondo ikusten den lekuetan jartzea, higiezin enpresako eta Visesako datuak barne.

Egikaritu edo argitaratu aurreko publizitate ororen berri eman beharko zaio Visesari (prentsa iragarkiak, postontzietan sartuz, karteldegia...), eta sozietate horren oniritzia jaso beharko du.

PREZIOA ETA ORDAINKETA

Visesak etxebizitzaren salmentagatik salmenta prezioaren % 1,85 ordainduko du, BEZik gabe, baina komisioa ez da inoiz 2.000 euro baino gehiago izango, BEZik gabe, etxebizitza bakoitzeko. Eta elementu libreak saltzeagatik (lokalak, garajeak...) salmenta prezioaren % 1,85.

Errentamendu araubidean edo errentamenduan baina erosteko aukera duten elementu libreak edo babestuak merkaturatzeko prezioa errentaren HILEKO KUOTA bat izango da, hau da, operazio bakoitzeko 600 euro gehienez.

Agente laguntzailearen kargu geratuko dira merkaturatzeko beharrezkoak diren gastu guztiak.

Zerbitzu-sariak une hauetakoren bat gauzatu eta 30 egunetara ordainduko dira: seinalea duen erreserba dokumentua formalizatu den data; salerosketako kontratu pribatua sinatu den data edo eskritura formalizatu den data, eta beti aurrez dagokion faktura aurkeztuz.

Ordainketa hori banku-transferentziaren bidez egingo da adieraziko den kontu zenbakian.

ERANTZUKIZUNA

Agente laguntzailearen esku geratuko diramerkaturatze-lanetan egiten dituen operazioen ondorioz beste batzuei eragin ahal izan dizkion kalte-ordainak.



MERKATURATU BEHARREKO ELEMENTUEN ZERRENDA

- **Basauri:** Merkataritza lokalak eta garaje libreak.
- **Durango:** Trastelekuak eta garaje libreak.
- **Bermeo:** Garaje libreak.
- **Gernika:** Garaje libreak.
- **Derio:** Merkataritza lokalak eta garaje libreak.
- **Eibar:** Garaje libreak.
- **Laudio:** Merkataritza lokalak eta garaje libreak.
- **Mutriku:** Merkataritza lokalak eta garaje libreak.
- **Eskoriatza:** Trastelekuak eta garaje libreak.
- **Arrasate:** Etxebizitzak eta garaje libreak.

KAPITALAK ZURITZEKO PREBENTZIOA

Agente laguntzaileak, alde batetik, bete behar ditu 10/2010 Legean ezarritako kapitalak zuritzeko prebentzioari eta terrorismoa finantzatzeari buruzko arauak, eta bestetik, VISESAk bere eskuliburu honetan ezarritakoaren berri izateaz gain, bertan adierazitako betetzeko konpromisoa hartzen du: *"Kontrol eta komunikazioko barne prozeduren eskuliburua, kapital zuritzeari lotutako operazioak ezagutu, saihestu eta egin daitezten eragozteko"*.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

- bilbao@visesa.eus
- donostia@visesa.eus
- gasteiz@visesa.eus
- sugerencias@visesa.eus